

Eguberri

da Ziburun !



11/26

>>

12/19

Eguberri da Ziburun !

“ Hemengo eta hango, atzoko eta gaurko ipuin eta elezaharrak Ziburuko karriketan zabalduko dira, ametsa eta asmamenaren lelopean antolatutako urte hondarreko bestak kari.

Bi asteko abentura eta fantasian sar zaitezte, Alice, Peter edota laminak eta Basajaunekin!

Egitaraua: antzerkia, dantza, zirkua, ipuinak, musika, tailerrak, jokoak eta beste hainbeste sorpresa ere.

Zatozte karpapera, erabilera anitzeko gelara edota hiriko karriketara, denboraz kanpoko une liluragarriak partekatzeke, ipuin harrigarri, jostakin edo misteriotsuren inguruan. ”

Emilie Dutoya, Kultura, ondarea eta elkarte bizitzaren ardura duen 3. axuanta.

Fanny Lascube, Hizkuntza politikaren ardura duen kontseilari ordezkaria.

Lr. 11/26	10:00-17:00
Lr. 12/03	9:30
Az. 12/07	14:00 & 16:00
Az. 12/07	18:00
Or. 12/09	19:30
Lr. 12/10	10:00
Lr. 12/10	15:00
As. 12/13	19:30
Az. 12/14	14:00
Az. 12/14	16:00
Or. 12/16	18:00
Lr. 12/17	10:00-17:00
Lr. 12/17	10:00
Lr. 12/17	11:00-12:30 & 15:00-16:30
Lr. 12/17	15:00
Lr. 12/17	17:00
Lr. 12/17	18:30
Ig. 12/18	10:00-13:00
Ig. 12/18	11:00
Ig. 12/18	12:00
Ig. 12/18	11:00-12:30 & 15:00-16:30
Ig. 12/18	17:30
Al. 12/19	14:00
Al. 12/19	17:00
Al. 12/19	18:30

Agenda !

Sortzaileen merkatua	Lannes plaza	FR
Irakurket'animazioa	Mediateka	FR
Eguberriko izaiak egiteko tailerra	Pilota plazako karpa	FR
Hari eta paper tailerra	Pilota plazako karpa	FR
O ikusgarria!	Erabilera anitzeko gela	Kantuak en EUS
Eguberriko apaindurak egiteko tailerra	Pilota plazako karpa	FR
Irakurketa kontatua Maddi Zubeldiarekin	Pilota plazako karpa	EUS
Peter Pan ikusgarria	Pilota plazako karpa	FR
Hari eta paper tailerra	Pilota plazako karpa	FR
Gizontto tailerra	Pilota plazako karpa	FR
Olentzeroren ibilaldia	Larraldeniako portutik	EUS
Sortzaileen merkatua	Lannes plaza	FR
Cupcake tailerra	Pilota plazako karpa	FR
Itsas zabaleko plisti-plasta	Lannes plaza	FR
Tea Party Alice lurralde miresgarrian	Pilota plazako karpa	FR
Photobooth Ipuin & Elezaharrak	Pilota plazako karpa	FR
Sutondoko ipuinak	Pilota plaza	FR + EUS
Liburutegi ibiltaria	Pilota plazako karpa	FR + EUS
Ipuinak ibilki irakurketa	Pilota plazako karpa	FR + EUS
Dakoté hirukotearen kontzertua	Pilota plaza	EN
Itsas zabaleko plisti-plasta	Lannes plaza	FR
Inbox ikusgarria	Erabilera anitzeko gela	Hitzik gabe
Euskal elezaharren bila	Pilota plazatik	FR + EUS
Euskal mitologiari buruzko ipuinak	Pilota plazako karpa	FR + EUS
Suzko danborrak ikusgarria	Zubiburutik	Hitzik gabe

Amesteko eta liluratzeko IKUSGARRIAK

Abenduaren 9a, ostirala, 19:30

kantuar
EUS

O! ikusgarria

Senperekko Elirale konpainia

Elirale konpainiaren karpapean sar zaitezte ametsetako esperientzia paregabea bizitzeko Oihan Indart dantzariarekin. Koreografia poetiko eta fin horrek bidaiaziko eta liluratuko zaituzte, itzal eta argi artean, euskarazko kan-
tu batzuek lagundurik. Itsaso-amildegia eta zero izartsua-
ren arteko zentzumenen bidaia

*Euskal Hirigune Elkargoko BERPIZTU sostengu planaren
esparruan.*

📍 Erabilera anitzeko gela • 3 urtetik goiti
Izena eman behar



© Stéphane Bellocq

Abenduaren 13a, asteartea, 19:30

Peter Pan ikusgarria

FR

Bordeleko Julie Teuf-ek zuzendua

Ongi etorri Sekula Betiko lurraldera! Haurtzaroko ametsen fantasia, goxotasuna eta sekulako askatasunarekin, Julie Teuf-ek James Matthew Barrie-ren obra famatua jeinu handiz taularatu du.

Peter Pan, Wendy, Txilintxo eta Kako-okor kapitain ikaragarria daude zuen zain pilota plazako karpan, malezia, umore eta zirraraz beteriko ikusgarri baterako. Handitzeko zein haurtzaroko ametsetan murgiltzeko gomita.

📍 Pilota plazako karpa • 6 urtetik goiti
Izena eman behar



© Pierre Planchenault

Abenduaren 16a, ostirala, 18:00

Olentzeroren ibilaldia

Ziburu Euskaldun eta Kaskarotenea ikastola

Ziburu Euskaldun eta Kaskarotenea ikastolak gomitatzen zaituztete abenduaren 16an, 18:00etatik goiti, Olentzero kantuz ospatzeko.

Mari Domingiri ongi etorria portuan izanen da. Ondotik, jende lerroa pilota plazara joanen da eta handik Ziburuko alde zaharreko karriketan ibiliko da. Berokian egoten bazarete, belarriak luzatu eta leihoak ireki, Olentzerori ongi etorria egin, neguburuari, berri onak eta berpizte bat dakartzala eta.

📍 **Larraldeniako portutik • Denentzat**

Sarbide librea

kantuek
EUS

**Abenduak 17 larunbata eta 18 igandea
11:00-12:30 & 15:00-16:30**

Itsas zabaleko plisti-plasta

Pedalekiko karrusela (Lamaguere - 32)

Denak igo gaitezen pedalekiko karruselera, Itsas Zabaleko Plisti-Plasta: ttipienak ontzi eroxka eta koloretsuetan igoko dira, eta gurasoak pedalotan.

Goazen itsasoan gaindi bidaiaztera, non bela-ontziak, hegazti migratzaileak, bale bat edota haize farfaila topatuko ditugun.

Eskusoinua, kontrabaxua eta perkusioak izanen ditugu bidaia alai honen lagun!

📍 **Lannes plaza • Familientzat**

Sarbide librea

FR



Abenduaren 18a, igandea, 12:00

Dakoté hirukotearen kontzertua

(Saint-Martin-de-Hinx — 40)

Dakoté hirukoteko lagunek Ziburura itzultzeko plazera egingen digute, Mississippi ibai hegietara eskapa gaitzen!

Igandeko merkatuaren denboran, une bat har ezazue pilota plazan emanen dituzten New Orleans eskualdeko eta jazz manouche estiloko estandarrek entzuteko.

📍 **Pilota plaza • Denentzat**

Sarbide librea

Abenduaren 18a, igandea, 17:30

Inbox ikusgarria

Soralino konpainia (La Plaine Saint Denis — 93)

Euritakoa daramaten bi gizon bitxi dira Inbox, bata jantzi handiegiak daramatzen ttipi bat eta bestea jantzi ttipiegiak daramatzen handia, kartoizko kutxa handiekin jolasten ari direnak.

Zentzugabeko aldaira langile horiek kartoia metaka ezartzen eta sakabanatzen dituzte, botatzen eta harrapatzen, baita haien gainera igotzen ere... tontorreraino eta kasik hondamendiraino. Sisifo mitoaren etxeko irudikapena.

Familian bizitzeko ikusgarri emankorra eta urragarria.

Etorkizuneko Zirkuaren 40. Munduko Festibalaren brontzezko medaila.

📍 **Erabilera anitzeko gela • Denentzat**

Izena eman behar

HITZIK
GABE



Abenduaren 19a, astelehena, 18:30

Suzko Danborrak ikusgarria

Bilboko Deabru beltzak konpainia

Gaualdi baten denboran, Ziburuko karrikek Akelarreko deabrua den Aker eta bere perkusionista segidaren erritmoan dardaratuko dute eta argituko dira.

Jatorrizko suziriek eta deabruzko erritmoek besta suhar batera eramanen zaituztete, aspaldi handiko trantze batera.

Musika, suziriak eta efektu bereziak abilki nahasten dituen hiriko ikusgarria.

Eden Street Food egonen da pilota plazan zuen sabelak asetzeko ikusgarriaren ondotik.

📍 **Ikusgarri ibiltaria, Zubiburuko Koxe Basurco karrikatik • Denentzat**

Sarbide librea

HITZIK
GABE



IPUINAK & IRAKURKETAK

Abenduaren 3a, larunbata, 09:30

Mediatekaren

Irakurket animazioa

FR

Lulu irakurlearekin eskapa zaitezte: gazteendako liburuak ezagutzeko eta familian une goxo bat pasatzeko aukera xarmanta.

📍 Mediateka • 5 urtetik goiti

Izena ematea gomendatua

Abenduaren 10a, larunbata, 15:00

Irakurketa kontatua

EUS

Maddi Zubeldiarekin

Behin bazen, Sadaar mendian, gizakia zirudien erraldoi oso azkar bat. Begi bakarra zuen kopeta erdian. Harpe batean bizi zen eta ardi larruz beztitzen zen...

Maddi Zubeldiak pilota plazako karpapera gomitatzen zaituzte, Tartaloren ipuina kontatzeko.

📍 Pilota plazako karpa • 4 urtetik goiti

Izena eman behar



Abenduaren 17a, larunbata, 18:30

Sutondoko ipuinak

FR EUS

Joseba Martin Ayalarekin

Egun hori bukatzeko, Joseba Martin Ayalak sutondora gomitatzen zaituzte ipuin zoragarriak kontatzeko: euskal mitologia, ipuin tradizionalak, etab... Estalki bat hartu eta zuen gogoia bidaiatzen utzi!



📍 **Pilota plaza • Familientzat**
Izena ematea gomendatua

Abenduaren 18a, igandea, 10:00-13:00

Liburutegi ibiltaria

FR EUS

dator igandeko merkatura

Abenduaren 18an, igandean, pilota plazako karpapean, lasai egoteko eta irakurtzeko xoko bat eskainia izanen zaizue. Goiz osoan, erosoki koka zaitezte irakurtzeko edo ipuinak entzuteko. Ongi etorriak dira helduak, haurrak eta familiak! Eta 11:00etan, konta-tapiz baten inguruan bil gaitezen, ipuin sinestezinei buruz amesteko, euskaraz eta frantsesez. Ipuinak ibilki konpainiaren Geneviève eta Maritxurekin.

📍 **Pilota plazako karpa • Denentzat**
Izena ematea gomendatua

Abenduaren 19a, astelehena, 17:00

Euskal mitologiari buruzko ipuinak

FR EUS

ipuinak Joseba Martin Ayalarekin

Pista jokoaren denboran, Atto bere lagunak aurkitzen lagundu ondotik, zatozte karpapera Joseba Martin Ayalaren ipuin harrigarriak ezagutzera, euskaraz eta frantsesez.

📍 **Pilota plazako karpa • Familientzat**
Izena ematea gomendatua

EGUBERRI sortzailea eta parte hartzailea

Azaroaren 26a eta abenduaren 17a, larunbata, 10:00-17:00

Sortzaileen merkatuak

Ziburuko sortzaileen merkatuak berriz datoz Lannes plazara. Gure usaia eskulangileak eta berri batzuk prest daude Eguberriko opari ideiak proposatzeko: bitxiak, larrukiak, apaintzeko gauzakiak, kosmetikak eta beste hainbeste sorkuntza! Gustu eta moltsa guziei egokiak izanen dira!

Melle Pipelette foodtruck egonen da egun osoan zehar janari gazi eta gozoa proposatzeko.

📍 Lannes plaza • Denentzat

Abenduaren 7a, asteazkena,
14:00 eta 16:00

Eguberriko izaia egiteko tailerra

Lurrera erortzen diren pinu orratzek nardatzen zaituztete eta urtero zenbait asteetarako izai gatz bat mozteak errudun sentiarazten zaituzte? Aurtan, izai ekoarduratsu baten hautua egiten bazenute? Zatozte zuen Eguberriko izaia bilketako zurez eraikitsera. Aterabide iraunkorra, polita eta merkea zuen etxe barnea apaintzeko Eguberriko bestetan!

Adakiak edo pinaburuak eraman itzazue etxean baldin badituzue.

📍 Pilota plazako karpa • Denentzat
Izena eman behar

FR



Abenduaren 7a, asteazkena, 18:00

Hari eta paper tailerra

FR

Bakarrik edo taldean, zatozte paperezko olerkia ezagutzera: zuek hautatutako pape-retik eta kraft armatuzko haritik abiatuz, Eguberriko pertsonaiak eta paisaiak sortzen ahalko dituzue.

Horrela, zuen etxea edo Eguberriko izaia apaintzen ahalko duzue sorkuntza fin eta poetiko horiei esker.

📍 Pilota plazako karpa • Nerabeak / Helduak • *Izena eman behar*

Abenduaren 10a, larunbata, 10:00

Oihalezko Eguberriko apaindurak egiteko tailerra

FR

Patch y Coug elkarteko jostunek Eguberriko izaietan ezartzeko oihalezko apaindurak egiteko tailer bat proposatzen dizuete. Zatozte Eguberriko koroak, girgilak edota bolak eraikitza, bilketako oihal puskak erabiliz.

Etxean, baliatzen ez dituzuen oihal puskak baldin badituzue, ateratzeko eta baliatzeko aukera hor duzue!

📍 Pilota plazako karpa • Denentzat • *Izena eman behar*



Abenduaren 14a, asteazkena, 14:00

FR

Harri historiak tailerra

Azken aste hauetan, uharri leun politak bildu ditugu tailer hori proposatzeko gisan: feltro lumaz edo marrazki molde horniturik, harri horiek moldatzen ahalko dituzue eta bizira ekarri.

Ondotik, bakoitzak itsura hautatutako uharri bat eskuan, haren historia asma-tu eta lagunei kontatu beharko diezue!

📍 Pilota plazako karpa • 6 urtetik goiti
Izena eman behar

Abenduaren 14a, asteazkena, 16:00

FR

Gizontto tailerra

Haur ttipiek ere etxearen apaintetan parte hartzen ahalko dute, jolastuz, Eguberriko izaian zintzilikatzeko kartoizko espezia bixkotx gizonttoak apainduz.

📍 Pilota plazako karpa • 3 - 6 urtekoak
Izena eman behar



Abenduaren 17a, larunbata, 10:00

Cupcake tailerra

FR

Sébastien Haramendyrek

Sebastieni sukaldatzea beti gustatu bazaio ere, pastiza tipiari zaletasuna halabeharrez garatu zuen: urtebetetze besta bat, bixkotx tipi horien multzoko salmenta bat Interneten, bere gomitak asetzeko gogoia eta... hainbeste egin zezakeelako segurtamena...

Zatozte haren trebetasuna ezagutera eta pastiza tipiak Alice lurralde miresgarrian ipuinetik ateratako azukre orezko pertsonaiekin apaintzera!

📍 Pilota plazako karpa • Familientzat
Izena eman behar



Abenduaren 17a, larunbata, 15:00

Tea Party Alice lurralde miresgarrian

FR

Zatozte dutea (edo beste gozokiren bat) hartzera Alice, untzia eta kapelagile eroaren konpainian! Zuen jantzirik ederrenak soinean ezar itzazue gurekin arratsalde bitxi eta zoragarria partekatzeko!

Makillatzaile bat egonen da karpapean zuen mozorroari azken hunkiak emateko eta joko ugari proposatuak izanen zaizkizue! Ongi etorri lurralde miresgarria!

📍 Pilota plazako karpa • Denentzat
Izena eman behar

Abenduaren 17a, larunbata, 17:00

FR

Photobooth ipuin & elezaharrak

Karpean sar zaitezte apaingarri batzuk hauta itzazue eta zuentzat apailatu dugun leku irudikapenaren aintzinean jar zaitezte!

Argazkilari profesional batek argazkitan hartuko zaituzte zuen ipuin kuttunaren pertsonaiaz mozorroturik. Irriz karkailaka lehertzeko aukera bikaina!

📍 Pilota plazako karpa • Denentzat

Sarbide librea



Abenduaren 19a, astelehena, 14:00

FR EUS

Euskal elezaharren bila

Gomita luzatzen dizuegu pilota plazan, bila eta aurki erraldoi baterako. Atto lamintxoarekin, zoazte euskal mitologiaren izaki nagusien bila.

📍 Pilota plazatik • Denentzat

Sarbide librea



EGUBERRI liluragarria, ttipi eta handientzat



Eskolako ikasleendako

tailerrak eta ikusgarriak

Aurten, Ziburu hiriko ama eskolako eta lehen mailako eskoletako ikasle guziek ibilaldi artistiko batez gozatzen ahalko dute Eguberriko bestak kari!

Marinela eta San Mixel ama eskoletako ikasleak eta Kaskarotenea ikastolako ikasle guziak erabilera anitzeko gelara joanen dira abenduaren 8 eta 9an, Elirale konpainiaren O! ikusgarria ikusteko.

Marinela eta San Mixel lehen mailako eskolako ikasleek *Peter Pan* ikusgarria ikusiko dute La Fabrique Affamée konpainiaren karpapean, abenduaren 12an.

Bi konpainietako artistek dantza eta antzerki tailerrak ere eramanen dituzte.

Eskolaldi inguruko harrera bat ipuin eta elezaharren inguruan

Azaro eta abenduan, eskolaldi inguruko denboran, ama eskolako haurrek ipuin eta elezaharren gaiari buruz lan eginen dute, batez ere «Hiru txerrikumeak» ipuinaren inguruan.

Haur bakoitzak «liburu bizi» baten sortzean parte hartuko du, orrialde bakoitz osagai batek animaturik (txotxongilo bat adibidez).



Haurrek pilota plazako karparen apainketan ere parte hartuko dute: alabaina, eskola bakoitzari eta haurtzaindegia zurezko Eguberriko izaiak emanak izan zaizkie, ipuin eta elezaharren gaia baliatuz apaindu beharko dituztenak.

Iduski Ederra klubeko adintsuendako

tailerrak eta ikusgarriak

Eskolako ikasleei bezala, Iduski Ederra klubeko adintsuei ikusgarriak eta tailerrak proposatuko zaizkie: horrela, hurrekin batera, *O!* eta *Peter Pan* ikusgarriak ikusten ahalko dituzte.

Bi tailer ere proposatuko zaizkie, haien murgiltze artistikoa osatzeko.

Azkenik, pilota plazan muntatuko den karparen apainketan parte hartuko dute, Kultura, ondarea eta elkarte bizitzaren zerbitzuko langile batek eramandako sorkuntza tailerrei esker

Haurtzaindegia

Marie Fleuret harrera anitzeko lantaldeak ipuinen eta asmamenaren inguruko lan bat eramaten du urte osoan zehar. Hurrek «Hiru txerrikumeak», «Marikixkur eta hiru hartzak» eta «Txano gorritxo» ipuinak ezagutuko dituzte eta gai honen inguruan jarduerak egingen dituzte urte osoan zehar.

Horrela, hurrek Brin d'Herbe elkarteko ipuinak entzuten ahalko dituzte abenduaren 8an, Elirale konpainiaren *O!* ikusgarriaren munduan murgilduko dira ikastolako ikasleekin batera abenduaren 9an, eta Le Chant des Histoires konpainiaren txotxongilo ikusgarria ikusiko dute abenduaren 15ean.

**Abenduaren 16an, ostirala,
10:00etan eta 15:00etan**

Eskoletako Olentzero

Hiriko eskola guzietako ikasleek gomitatzen zaituztete usaiko Olentzero ekitaldia ospatzeko!

10:00etan, ama eskolako hurrekin batera, zatozte Herriko Etxearen aitzinean Eguberriko kantak abestera.

Haur handiagoak hiri zaharrean gaindi ibiliko dira 15:00etatik goiti, ikazkina ospetsuaren osagaiak bilatzeko, karpapera heldu arte musikaz lagundurik!

📍 Pilota plazan edo parrokiako gelan
(Pocalette karrika) euria izanez gero.



ARGIBIDE PRAKTIKOAK

Eguberriko ekitaldi guziak urririk dira.
Hitzordu guzien denboran, jateko zerbaitxo eta
edatekoa eskainia izanen zaizue pilota plazako
karpan eta erabilera anitzeko gelan!

NOLA ERRESERBATU?

Telefonoz

06 10 75 45 61

Mezu elektronikoz

animations@mairiedeciboure.com

Linean

<https://billetterie-ciboure.mapado.com/>

KULTURA. ONDAREA ETA ELKARTE BIZITZAREN ZERBITZUA NON ETA NOLA AURKITU?

Asteartetik ostiralera : 8:15 - 12:00

•

Camille Jullian plaza
Denak Batean eraikina 2. solairua
64500 Ziburu

•

 cultureciboure

www.mairie-ciboure.fr

www.ziburuko-hiria.eus